

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OIARTZUNGO UDALA

Iragarkia

Alkateak, 2025eko maiatzaren 12ko dataz, 855 zk.ko Dekretuaren bidez honako erabakia hartu du:

2024ko azaroaren 28an, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 230 zk.) argitaratu zen Oiartzungo Udaleko administrari lanpostuari dagokion administrazio orokorreko eskalako administrazio azpieskalako bi (2) plaza lehiaketa-oposizio irekiaren bidez betetzeko deialdia eta oinarriak. Deialdia eta oinarri arautzaileak 2024ko azaroaren 21eko 1771/2024 Alkate Dekretuaren bidez onartu ziren.

Deialdiaren 1.3 oinarriak honela dio hitzez hitz: «Deialdiko plaza-kopurua handitu ahal izango da, gehienez ere, gainditutako izangaien zerrenda argitaratu aurretik sortzen diren plaza hutsen kopuruarekin. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzea. Plazen gehikuntza hori, nolana ere, langile berriak sartzeko mugari buruz indarrean dagoen legeria betetzearen baldintzapean egongo da, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udalaren webgunean (www.oiartzun.eus) erabaki eta argitaratu beharko da, gainditutako izangaien zerrenda argitaratu aurretik.

Administrari lanpostuari dagokion administrazio orokorreko eskalako administrazio azpieskalako plaza huts bat 2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu da. Erabaki hori Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko martxoaren 25ean egindako bilkuran onartu zen, eta 2025eko apirilaren 10eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (69 zk.) eta 2025eko apirilaren 30eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* (80 zk.) argitaratu zen.

Hautaketa-prozesuari dagokionez, une honetan prozesua oposizio-fasean dago, eta epaimahai kalifikatzaileak ez du onartu oraindik gaindituen behin betiko zerrendarik.

Honenbestez, kasu honetan, hautaketa-prozesua hasi ondoren plaza hutsak gehitzeko edo metatzeko aukera oinarrietan jasoa dago, eta aldeztu aurretik plaza berria 2025. urteko EPEan barneratu da; beraz, bidezkoa da deitutako plaza-kopurua gehitzea, baldintza bi horiek betetzen direlako.

Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egiarritan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Plaza bat gehitzea Oiartzungo Udaleko administrari lanpostuari dagokion administrari azpieskalako administrazio orokorreko eskalako plazen hautaketa-prozesuan, 2024ko azaroaren 21eko 1771/2024 Alkate Dekretuz onartutakoa. Deialdia eta oinarriak 2024ko azaroaren 28an (230 zk.) Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren.

Bigarrena. Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaleko web orrian argitaratzea.

Oiartzun, 2025eko maiatzaren 13a.—Joana Mendiboure, alkatea. (3655)

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Anuncio

La Alcaldesa, mediante Decreto n.º 855, de fecha 12 de mayo de 2025, ha adoptado la siguiente resolución:

El 28 de noviembre de 2024 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 230) la convocatoria y las bases para el acceso, mediante el sistema de concurso-oposición libre, a dos (2) plazas de la subescala administrativa de la escala de administración general correspondiente al puesto de trabajo de administrativo/a del Ayuntamiento de Oiartzun. La convocatoria y las bases reguladoras fueron aprobadas mediante Decreto de Alcaldía 1771/2024, de 21 de noviembre de 2024.

La base 1.3 de la convocatoria dice textualmente que «El número de plazas convocadas podrá incrementarse, como máximo, con el número de vacantes que se generen antes de la publicación de la lista de aspirantes aprobados. En este caso, no será necesario abrir un nuevo plazo de presentación de solicitudes. Este incremento de plazas estará condicionado, en todo caso, al cumplimiento de la legislación vigente sobre limitación de incorporación de nuevo personal, debiendo acordarse y publicarse en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento (www.oiartzun.eus) con carácter previo a la publicación de la lista de aspirantes aprobados.

Una plaza vacante de la subescala administrativa de la escala de administración general correspondiente al puesto de administrativo/a se ha incluido en la Oferta de Empleo Público de 2025. Dicho acuerdo fue aprobado por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el 25 de marzo de 2025 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 69, de 10 de abril de 2025 y en el *Boletín Oficial del País Vasco* n.º 80, de 30 de abril de 2025.

En cuanto al proceso selectivo, en estos momentos el proceso se encuentra en fase de oposición y el tribunal calificador no ha aprobado aún la lista definitiva de personas candidatas aprobadas.

Por lo tanto, en este caso, la posibilidad de añadir o acumular plazas vacantes una vez iniciado el proceso selectivo está contemplada en las bases, y previamente se ha incluido la nueva plaza en la OEP del año 2025, por lo que procede aumentar el número de plazas convocadas, al cumplirse ambos requisitos.

En el ejercicio de las facultades que me confiere el Reglamento de Régimen Local,

RESUELVO

Primero. Incrementar en una el número de plazas a cubrir en el proceso selectivo de plazas de la escala de administración general de la subescala administrativa correspondiente al puesto de trabajo de administrativa/o del Ayuntamiento de Oiartzun, cuya convocatoria y bases fueron aprobadas por Decreto de Alcaldía 1771/2024, de 21 de noviembre de 2024, y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 28 de noviembre de 2024 (n.º 230).

Segundo. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web municipal.

Oiartzun, a 13 de mayo de 2025.—La alcaldesa, Joana Mendiboure. (3655)